

## ERRIMA ERLIJOSOAK

Badut adiskide min bat,  
ezin hobia deritzat;  
Hartaz oroitzen naiz maizen,  
badakit norekin naizen.  
Zu zaitut bai solaskide,  
Zu gidari eta bide,  
Zurekin eguna hastean  
eta haren azken hatsean;  
bitartean hitz galduak,  
barreiatu, maskalduak,  
zurrunbilo-erasanak  
airez hortik eramanak.

Ez da eten harremana,  
biok lotzen gaituana;  
badira interferentziak,  
bai eta diferentziak:  
batetik nire zaputzak,  
zure kontrako nire hutsak,  
itsualdiak, herrenak;  
bestetik nire arrenak  
Zugana barkamen eske;  
beraz, berriz bil gaitezke,

berriz biok adiskide,  
bihotzeko solaskide.

Orduan sentitzen dut nik  
laztan gozoa zugandik,  
bihotzeko besarkada  
zinez bertatik bertara.  
Neurekin zaitut berriro,  
Zurekin naiz maitekiro;  
bai gora nauzula ni igo  
amildegitik goraino!  
Zer da, Jaun ona, zerua,  
Zu zauden tokia baino?  
Zeruak izan behar du,  
maiteminduen otordu.

Hona hemen ni buztina,  
har nazazu zeure eskutan,  
baina kontuz, zipriztina  
botatzen baitut askotan  
neure lur-oka honetan,  
edonor lohitzen duena.  
Har esku trebe horietan  
lur-ore formagabea,  
nire esentzia pobrea,  
lur puska baizik ez dena,  
baina zure esku finetan  
handi izan daitekeena.

Zuk artista goren horrek  
emango inongo urrek  
izango ez duen distira  
zeure molde-irudira;  
zure labe horretan bai  
lan dezakezula noiznahi  
eskultura hoberena,  
zeure moldea duena!  
Izan nadila bai duina,  
arren, zure begietan  
eta zinez atsegina  
zurekiko harremanetan.

Kontu batzuk dakarzkizut;  
ongi dakizkizu bai zuk.  
Zurekin naiz asaskatzen  
eta barnea askatzen:  
hemengo borrokak, lehiak,  
elkarrekiko inbidiak,  
nork nor mendean hartuko,  
ezertan hasi orduko.  
Kanta bat dator burura,  
harira edo kontura:  
“Ni naiz kapitain pilotu,  
niri behar zait obeditu...!”

Biok ginen iturrian  
giro liluragarrian;

hor dugu geure erromara,  
hitz egiteko parada  
esparru gozo horretan;  
eta ni beti zorretan,  
zure grazien ordainez  
ongi erantzun ezinez.  
Iturrian nintzen berriz,  
Zuk dei eginda etorritz;  
zenbat kontu ur hotsera  
bihotzetik bihotzera!

Gaur kezka bat dakarkizut,  
aspaldiko arantza dut,  
ariman daramadana,  
huts dezadan hemen zama:  
Uzta beti bezain handi,  
gure indar urriez gaindi;  
hola uzten bagaituzu,  
eguna bihurturik gau,  
nola lantzea nahi duzu,  
baratze bedeinkatu hau?  
Baina Zu gurekin zaude  
eta dena dugu alde.

Beraz, ken horren zalantza  
eta piztu esperantza.  
Kontra izan arren haizea,  
Zu zaitugu guk bermea;

hodei ilunak datoz baina  
hartuko diegu gaina.  
Ezinezkoa dirudi,  
Zuk eutsi ezean guri.  
Gutxi gara eta zabarrak,  
gehientsuenak zaharrak;  
hona gure kontrastea,  
Zu, berriz, beti gaztea.

Gaur ni neure buruari  
begira naukazu adi:  
hona zer esan ezean  
neure lehorte luzean,  
une hau probetxurako  
hartzea nahi nuelako;  
hemen naiz erdi isilik,  
ideiak lotu ezinik,  
ura nola aterako  
putzutik arimarako.  
Ez zait ezertxo etortzen;  
arima egarriz itotzen...

Gure iturria hortxe da,  
hortxe da Maitea bera;  
bai dela bazter kutuna!  
bihotzaren oihartzuna.  
Betikoak biltzen gera  
zure ur hori hartzera;

burruntziak berbaroan  
hegazkako abaroan;  
betiko ur-zirriparra  
eta salmoen marmarra.  
Ez da jolasik izaten  
hitzez nekez da adierazten

*Luis Baraiazarra*

2016ko otsaila